

Xabier Martin Donostia

Espainiako Senatutik Kongresurako bidea egitera doa Maribel Vaquero (Urnieta, Gipuzkoa, 1970). EAJren Gipuzkoako zerrendaburuak garrantzia kendu die inkestei, eta, gobernuan dagoena dagoela ere, haren alderdiak «autogobernua» eta «naziotasuna» defendatuko dituela hitzeman du. **Inkestek ez dituzte emaitza onak islatzen EAJrentzat. Kezkarik baduzue?**

Inkestak dira. Aurreko bozetan esaten zuten boto kopuru jakin bat izango genuela, eta ez zen horrela izan. Beraz, inkestak balioa asmatzen dutenaren arabera finkatu behar da, eta ikusteko dago uztailearen 23an zer gertatuko den. Galdeketek joera bat finka dezakete, baina nik neuk ere ez dut asmatzen askotan. Ematen den botoa, hautetsontzian dagoena, hori da benetan balio duena.

**Maiatzeko bozetan, milaka boto galdu zituen EAJk. EH Bilduk Gipuzkoan lortu duen nagusitasuna egonkortuko ote duen aintzat hartzen hasi zarete?**

Hauteskunde desberdinak dira, eta bestelako gakoak dituzte. Bixia da, baina Espainiako Gorteetarako bozetan abstentzio apalagoa izaten da. Posta bidezko botoa nola ugaritu den ikusita, horrek oinarria eman dezake pentsatzeko abstentzioa txikiagoa izango dela orain. Gobernatzen ibiltzen garenok, pandemia tarteko, higidura pixka bat izan dezakegu beti, baina oraingo bozak bestelakoak dira. Abstentzio hori aktibatzea da gure helburua orain. Maiatzeko hauteskundeen ostean, [Andoni] Ortuzarrek berak esan zuen jaso dugula mezua, eta aurrera egin nahi dugula gozoz.

**Pedro Sanchez eta Alberto Nuñez Feijooen arteko lehiak boto asko bereganatu ditzake Euskal Herrian. Zaila da abertzaleek mezuak iritsaraztea polarizazio giro horretan?**

Ez da erraza, Sanchez ala Feijoo, hori baita leku askotan eskaintzen den guztia. Baina badago beste aukera bat: EAJren alde bozkatzea. Izan ere, Euskadiri beste gako batzuekin bozkatzea komeni zaio. Azkeneko, Espainiako bi alderdi nagusi horien euskal ordezkariak Madrilerara joaten dira, eta hango dinamikan sartu: alderdi horien nagusien mende egoten dira. Gu bitartekaririk gabe goaz: Euskadiren ahotsa eramaten dugu Madrilerara, zuzenean, bestelako mendekotasunik gabe; eta ez daukagu bestelako motxilarik ere, iraganeko motxilarik, alegia. Gure iparrorratza Euskadi da.



MAIALEN ANDRES/FOKU

## «PPk marra guztiak gainditu ditu: guk hura babestea utopia bat da»

**Maribel Vaquero**

Espainiako Kongresurako EAJren Gipuzkoako zerrendaburua

EAJko ordezkariak «bitartekaririk gabe eta beste motxilarik gabe» doaz Madrilerara, Vaqueroren arabera, herritarren «ongizatea» defendatzera.

**EAJk esan dezake PP ez duela babestuko egoera aritmetikoa edozein dela ere?**

PPk marra gorri guztiak gainditu ditu Voxekin itunak egitean. Demokrazia atzera egiten ari da, eta mehatxuka ari dira, zenbait lege baliogabetuko dituztela esaten. Horren harira, guk tinko jardungo dugu; beraz, guk hura babestea utopia bat da. Guk Euskadiren aldeko programa bat dugu Madrilerara eramateko, giza eskubideen aldekoa, eta ez dugu inboluziorik onartuko. Lidergoa dugu giza eskubideen aldeko lege horietan, eta gure botoa ez diogu emango horren aurka doanari. Hau da, proposatzen duzun aukera hori oso urrun dago errealtetatetik. Gure autogobernua zailtzen jartzen duenari ezin diogu babesik eman.

**PPk eta Voxek gobernua osatuko balute, EAJren estrategia nolakoa litzateke? Autogobernua, euskara eta naziotasuna sendago defendatuko litzateke?**

Gogor gabilta jada horretan, eta urte askoan. Autogobernua sarri-

tan aipatzen da, eta, hain zuzen, kanpaina honetan autogobernuaren balioa azpimarratzeko ahalegina egiten ari gara. Euskal herritarrentzat, kohesioa, ongizate soziala eta justizia soziala da autogobernua. Ezinbestekoa da gure eskubide historikoak, foruak eta autogobernua bermatzea. Horiek defendatu ezean, Madrildik egiten duten higidurak herri gisa dugun botere hori galaraziko digu. Eta lege proiektu ugari eragin dute azken urte-

**«Eskumenen higadura handituz doa: EH Bilduk ahalbidetu du eskuduntzen inbasioa gertatzea etxebizitza legean»**

tan higadura hori, sarritan salatu dugun moduan. PSOEk eta Podemosen proposatutako legeak izan dira, argi. Hau ez da, beraz, eskuin-ekzter ardatz bat: Madrilen, eskuinak eta ezkerak bat egiten dute euskal eskumenak higatzeko. Podemosek ez du ulertzen estatutu plurinazionala zer den. Higidura horri, neurri batean edo bes-

tean, aurre egin ahal izan diogu azken legegintzaldian, baina, bartzuetan, ez da posible izan.

**Etxebizitza legeari buruz ari zara? EH Bilduk hari babesa eman izanaz?**

Bai, etxebizitza legean ezin izan dugu gure eskumenen higadura galarazi, ERCK eta EH Bilduk baiezkoa eman baitiote. Ez da beste alderdi abertzaleok horrela nahi izan dugulako gertatu: BNGk ez du onartu, CUPEk ere ez, eta Juntsek eta PDeCATEk ere ez.

Alderdi independentista horiek ahalbidetu dute eskuduntzen inbasioa gertatu izana.

**Gizarte Segurantzaren eskuduntza eskatzen ari zarete. Uste duzue Espainiako Gobernua prest egongo dela kutxa bakarra haustearekin lotzen duten erlauntz horretan sartzeko?**

Orain arte ez dira prest egon; ez da egia, ordea, elkartasun kutxa hori hautsiko litzatekeela. Kontzertuarekin ere argi ikusten da gu solidarioak garela beste erkidegoe-

### MOTZEAN

**Senataria izan zara. Nola joan zara Madrilerara urteotan?** Normalean, hegazkinez, baina trenez ere bai.

**Eserlekuan zeundela zer irakurri duzu?** Geroa gurea da izan da eskuarte eduki dudana azken liburua, Koldo Ordozgoitirena. Ibarretxeren oroitzapenak dira.

**Senatutik kanpo, baduzu leku kuttunik han?** Jendeak ez du sinetsiko, baina apenas ateratzen garen Senatutik edo Kongresutik.

**Madrilen, eltzekoa Madrillgo erara ala Tolosako babarrunak?** Duela gutxi egon ginen euskal jartetxe batean, baina gustukoa dut nagoen lekuan bertakoa jatea.

**Lagunik egin duzu alderditik kanpo Senatuan?** Legealdi erdia musukoarekin egin dugu; ez da erraza izan. Juntsekoekin badugu harremana, baina ez estua.

**Euskaraz aritzeagatik inork ezer esan al dizu Madrilen?** Ez, baina euskaraz aritu izan naiz Senatuan, eta gehienek uko egin diote itzultzekoa belarran jartzeari ere. Zurrumurrua zabaltzen da euskaraz hasi orduko.

kin, baina geurea geuk kudeatu nahi dugu. Ez gara besteena eskatzen ari. Badakigu Euskadik kudeatzen duenean emaitza hobekak daudela, eta hori garrantzitsua da ongizatea bermatzeko.

**Aldiriko trenen transferentzia ez da gauzatu. Noiz arte egon daiteke EAJ estatutua betetzeko eskatzen, estrategia subiranistagoa abiarazi gabe?**

Euskaldunok dugun erabakitze-ko eskubidearen alde hitz egiten du gure programak. Eta argi dugu naziotasunaren auziari buruz hitz egin beharra dagoela. Ez dugu bakarrik Gernikako estatutua betetzeko eskatzen. Aurrerantzean ere exijituko dugu bete dadila onartua dagoen lege organikoa, baina mahai gainean dago beste eskaera ere.

**Euskararen aurkako eraso judiciala gero eta bortitzagoa da. Zer egin dezake zure alderdiak Madrilen?**

Kezka oso handia dugu, eta hala salatu dugu kanpainan. Auzitegi Konstituzionalean gehiago dira epaile progresistak kontserbadoreak baino, eta, hala ere, eraso hori gertatzen ari da. Irakurketa ezin da ezker-eskuin parametroan egin, beraz. Badago mehatxu bat euskararen aurka, eta mehatxu hori garrantzitsua da. Aurre egin beharko diogu, bai European, bai Espainian, eta bai hemen ere. Batu egin beharko dugu gure hizkuntza defendatzeko.